



Laura Martínez de Guereñu °

Proiektu amaigabeak eta arkitektoen jarrera diskurtsiboak

Azken urte hauetan, etxebizitza sozialen proiektuek arkitektura-kritikan leku nagusi bat hartu dute (1). Proiektu hauek bertako eragileak izaten dituzte kontuan, baina beraien ardura ez da egokitzen diren testuinguru fisikoetara murrizten. Testuingurua ulertu —eta horri erantzuna ematen diote— askoz ere handiagoa den zentzu politiko, ekonomiko eta sozial batean. Proiektu hauek zalantzan jartzen dute eraikuntza bat objektu finko batekin parekatu dezakeen ideia. Amaigabetasun eta aldaketari buruz hitz egiten digute; eta zain egoten dira biztanleek proiektu berak bereganatzen dituzten arte.

Bai formalak ez diren ildo bolometrikoak eskainiz —ondoren etorriko diren hedadurak norberaganatzeko gaitasuna izango duten “eremuen” bidez— bai guztiz espezifikoak diren erantzunak agertuz —erabilera desberdinak izan ditzaketen “nodoen” bidez—, eraikuntza hauek ez dira irudi singular bat lortzen saiatzen. Horren ordez, beren arreta guztia harresi horien atzean bizi diren biztanle isilen benetako beharrak zein diren jakiten jartzen dute, modu horretan, biztanleei prozesuan parte hartzeko aukera bat emanez. Fernando Pérez Oyarzun Txileko arkitekto eta kritikoak egiten duen bereizketa batean oinarrituz, esan genezake arkitekto hauek ez dituztela eraikuntzok beraien “ispilutzat” hartzen, ez baitituzte islapen estetiko bat izan dezakeen izate autonomotzat jotzen. Modu askoz ere zuzenago batean, arkitekto hauek eraikuntza hauek “estalki” edo bigarren larrutzat hartzen dituzte, arkitekturaren erabiltzaileak —eta ez arkitektoak— babesten dituen estalkitza, hain zuzen. (2)

Etxebizitza-eraikin hauek gogorarazten digute arkitekturaren helburu nagusia ez dela “amaierako forma”. Materialak ez dira kalitate onenetakoak izan behar emaitza arrakastatsu bat


ziurtatzeko. Aldiz, horrelako proiektuetan erabiltzen diren materialak gehienetan teknologia baxukoak izaten dira; askotan, zeramika xumeak edo zementuzko adreilu soilak katalogo teknikoetatik aukeratzen diren eta eraikuntzei zuzenean aplikatzen zaizkien beste zenbait elementurekin konbinatzen dira. Batzuetan, material hauek akaberako kolorea jasotzen dute, eta beste batzuetan, biluzik gelditzen dira eraikuntza-prozesuaren pauso bakoitza agerian utziz. Nahiz eta eraikin hauek luxuzko materialik ez izan, duintasun maila handia erakusten dute, oso malgua den azpiko ordena bat azaltzen dutelako. Eta ordena horrek gaitasuna erakusten du beharrezko handitzeak, desira daitezkeen akaberak eta etxebizitzak okupatuko dituen jende arruntak eman diezazkiekeen erabilera potentzialak jasateko.

Etxebizitza sozialen proiektu hauek autore bereziak dituzten eta eraikuntzaren boomaren testuinguruan hainbeste bultzatu eta eraiki diren eraikuntza singularren kontrako ikuspegiari jarraitzen diote. Planteamendu horren aldaketa erakusten duen adibide argi bat “Small Scale, Big Change: New Architectures of Social Engagement” (*Eskala Txikia, Aldaketa Handia: Gizarteaz arduratzen diren Arkitektura Berriak*) MoMAko erakusketari eman zitzaion arreta da. 2010.eko udazkenean ospatuta, ikuskizun horrek aldarrikatzen zuen pertsona arruntentzako hobetzeko arkitekturak duen gaitasuna eta gogorarazten zuen arkitektura ona ez litzatekeela izan beharko aukera daukaten gutxi batzuen pribilegio bat, baizik eta gizartearen maila ekonomiko guztietara heldu beharko litzatekeen arte bat. Erakusketa horrek jasotako arrakastak oraindik eta zentzu handiagoa hartzen du lau urte lehenago egindako beste erakusketa honekin parekatzean: “On-Site: New Architecture in Spain” (*Orubean: Arkitektura berria Espainian*). 2006an

(1) Arkitektura—objektu singularrek jadanik ez dute erakusketa, aldizkari, eta beste zenbait argitalpenen arreta eskusiboa jasotzen. Nolakoasun ikoniko handia duten eraikuntzek lehen jasotzen zituzten sariak, hain formalistak ez diren etxebizitza sozialen proiektuek jasotzen dituzte orain. Zenbait etsenpluren artean, etorkizun oneko arkitekto bati ematen zaion Veneziako Bienalaren Zilarrezko Lehoia, etxebizitza sozialak, azpiegitura-lanak, eta espazio publikoko proiektuak garatzen dituen Txileko Elemental taldeak jaso zuen 11. edizioan, 2008. urtean ere, FAD Arkitektura Saria Emiliano Lopez eta Monica Rivera-k Bartzelonako Sant Andreu auzoan eraikitako alokairu merkeko etxebizitza sozialek jaso zuten, 2011ean. Arkitektura eta Hirigintzaren Espainiako Bienal Saria Zigzag Arkitektoek Mieres-en eraikitako etxebizitza sozialek jaso dute.


(2) Fernando Pérez Oyarzun, “The Mirror and the Cloak”, Cynthia C. Davidson, ed., AnyBody (Cambridge, Mass., The MIT Press, c1997), 218–227 orr.

(3) Andres Lepik—ek komisariatua, “Small Scale, Big Change: New Architectures of Social Engagement” erakusketa 2010.eko urriaren 3tik 2011.eko urtarrilaren 3ra egin zen New York-eko MoMA-n. Azterketa sakon baterako begiratu Andres Lepik, *Small Scale, Big Change: New Architectures of Social Engagement*, The Museum of Modern Art, New York, 2010, eta Luis Fernández-Galiano, “Rosas en Invierno”, *El País*, Abenduak 31, 2010. http://www.elpais.com/articulo/opinion/Rosas/invierno/elpepiopi/20101231elpepiopi_12/Tes




1. irudia
 Elemental (Alejandro Aravena, Andrés Jacobelli eta Pablo Allard). Erosketarako 93 etxebizitza sozial Quinta Monroy-n. Iquique, Chile. 2003. Eraikuntza bi etapa garbitan banatuta agertzen da. Goiko argazkia: Arkitektoek diseinaturiko etxebizitza taldearen lehen erdia. Arkitektoen hitzetan, etxeen "erdi onena". Beheko argazkia: Etxebizitzaren ondorengo egoera, biztanleek beren hedapenak, beste "erdiak", eraiki dituztenean.

Solairu tipoa



Behe-solairua



2irudia

Emiliano Lopez eta Monica Rivera. Alokairurako 27 etxebizitza sozial Sant Andreu-n, Bartzelona, 2007. 60 cm-ko zabalera duen itxitura, non etxerako sarrera eta leiho bat egokitzen diren. Arkitektoek definitutako erabilera desberdinak izan ditzakeen "espazio indargetzaile" bat. Bertan, biztanleen objektu bereziak leku zehatzetan kokatzen direnean, eguneroko bizitzaren eszena desberdinek espazioa aktibatzen dute.



egindako erakusketa horretan leku bateko politikari erantzuna ematen dioten eraikuntza ikonikoak ekarri ziren lehen planora –museoak, auditorioak, kongresu-jauregiak eta abar– leku berezi bateko biztanleen eguneroko zereginen arduratzen diren proiektu ez-adierazgarriak alde batera utziz (4). Denbora labur batean, instituzio ospetsu berean egindako bi erakusketa horien nolakotasunen arteko desberdintasunak erakusten du gizarteak gaur eskatzen duen arkitektura-erakuntza motaren aldakuntza. Eta bide batez, gizarteak ez duela eraikuntza ikusgarri eta adierazgarri gehiagorik nahi, ezpada errealitatearekin eskuz esku jarduteko gai diren proiektuak. (5)

Etxebizitza-erakin proiektu hauek garatzen ari diren arkitektoek ez dute jarrera ezarle bat erakusten, kontrako jarrera ekoizle bat baizik. Ez dira konformatzen erantzun abstraktuak ematearekin, baizik eta biztanleen benetako beharren ulermenarekin arduratuta daude. Beraientzat, arkitekturaren diziplina adimenaren produktu bakarti bat baino gehiago, bidean dagoen esperientzia bat da; eta beren eraikuntzek izan ditza-keten emaitzez baino gehiago, beren proiektuen “prozesuaz” kezkatzen dira. Zentzu horretan, arkitekto hauen eraikitako ingurunearekiko ekarpena ez da objektu zehatz bat sortu ahal izatea, baizik eta ikasbide bat garatzea; biztanleei beren bizitzako espazioak eraikitze eta esperimentatzeko betekizun bat emango dien sistema bat osatu ahal izatea.

Bai aktibista politikoak bezala bai tradizio kulturalen interpretatzaileak bezala, arkitekto hauek jarrera diskurtsibo bat erakusten dute. Beraien agenda formalaz arduratu ordez, espazio ireki bat uzten dute eta, horregatik, amaitu gabe dauden proiektuak sortzen dituzte, bertan biztanleek erabilera edota materializazioaren bidez parte har dezaten. Jarduera honek proiektuen arazo txiki guztiez arduratzeko gaitasuna ematen die arkitektoei eta, oraindik garrantzitsuagoa dena, modernitatearen utopia bizirik mantentzeko ahalegina. Arkitekto hauek ez dute irudi bat daukan obra zehatz bat eraiki nahian lan egiten, baizik eta 1920ko hamarkadan seriean fabrikaturiko etxebizitzak egiten zituzten arkitekto modernoek xede berari jarraitzen diote (6). Horregatik, arkitekto hauen jarrera diskurtsiboa, krisi ekonomiko honetan, norberaren ezaguera areagotzeko eta gizarteko bizitza hobetzeko arkitekturak daukan botere eta gaitasunean sinestarazten ahalegintzen da, hor nonbait modernitatean gertatzen zen bezala. (7)

(4) Terence Riley-*k* komisariatua. "On-Site: New Architecture in Spain" erakusketa 2006. eko otsailaren 12tik maiatzaren 1era egin zen. Beste batzuen artean, MoMA-ko erakusketaren arrakastarekin argitaratu ziren testu garrantzitsuenak honako hauek dira: Terence Riley, On-Site. New Architecture in Spain (New York: The Museum of Modern Art, 2005); Terence Riley, On-Site. Arquitectura en España Hoy (Madrid: PromoMadrid, 2006); Spain Builds, AV Monografías 113 (2005); eta La lista del MoMA, Arquitectura Viva 104 (2005).

(5) Krisi material handi bat hauteman dezakegun garai honetan eguneroko "errealitatea" gero eta arreta handiagoa erakartzen ari da. Eguneroko arkitektura, bere hutsalderia eta bakantasunean, zeharo aztertzen ari da garapen-bidean eta garaturik dauden herrialdeetan. Zentzu horretan ikusgarria da aldizkari honen honako zenbakia: "The Real," Perspecta 42 (2010).

(6) Vers une architecture-ko kapitulu nagusietako batek erakusten duenez, Le Corbusier 1920ko hamarkadaren hasieran, serieko fabrikazioko etxebizitzaren ikerketan aurrera egiten interesaturik zegoen. Horretarako aztertu Le Corbusier, "Mass-Production Houses." Toward an Architecture (Los Angeles, Calif.: Getty Research Institute, c2007). Argitalpen originala. Vers une architecture (Paris: Crés, 1923). Estandarizazioarekiko, malgutasunarekiko eta tipologiarekiko oso hurbilketa desberdinak erakusten zituzten Stuttgart-ko Weissenhof Siedlung erakusketan eraikitako serieko-fabrikazioko etxebizitzaren proposamen desberdinek, arkitekto modernoek asmoa zein zen argi adierazi zuten: arkitekturak -eta eraikitze sistema berriak- eguneroko bizitzaren bereganatzea erraztuz. Hona hemen erakusketak horrek arkitektura kulturarekiko suposatzen duen ekarpena erakusten duen liburu bat: Richard Pommer, Weissenhof 1927 and the modern movement in architecture (Chicago: University of Chicago Press, 1991).

Gaur egun, arkitektoen idazkera berezi bat adierazten ez duten, eta, aldiz, biztanleen gurariak norbereganatzeko malgutasun nahikoa daukaten eraikuntzak sortzeko era asko daude. Hala ere, erraztasun handiarekin bi polo bereiz genitzake. Alde batetik, mugarik gabe irekita azaltzen diren eraikuntzak izango genituzke; eremu bat eskaintzen digutenak, estandarizazioan oinarritzen direnak eta azkeneko formari malgutasun mailarik handiena eskaintzen dioten eraikuntzak izango liriteke. Beste aldetik, guztiz espezifikoko diren eraikuntzak izango genituzke; eguneroko bizitzaren eszenatoki desberdinetarako erabilera potentzialeko moduak eskaintzen dizkigutenak, eta espazio txikien sekuentzien ikaskuntza arretatsuari esker lortzen direnak.

Bi eraikuntza mota hauek malgutasun maila handi bat erakusten dute eta bi hurbiltzeen arteko desberdintasuna malgutasun horren iturburuan oinarritzen da. Alde bateko adibide argi bat Elementalek 2003an Txilen garaturiko Quinta Monroy delako etxebizitzaren proiektua izan daiteke (1.irudia). Beste aldeko adibide argi bat, Emiliano Lopez eta Monica Riverak 2007an Bartzelonan eraikitako alokairurako etxebizitzak izan daitezke (2.irudia). Eraikuntza hauek, beraien sorkuntzaren hasieratik, biztanlea, programa eta eraikuntzaren erabilera potentziala proiektuaren atal garrantzitsuenak kontsideratzen dituzte. Eta zentzu horretan, proiektu hauek arkitektoen eta biztanleen arteko jarraipena duen elkarriketa bihurtzen dira.

Arkitekto hauek autoretzaren kezka alde batera uzten dute eta pragmatismo erradikal batekiko konpromisoa adierazten dute. Ez dute jokatzeko forma-emaileak izango balira bezala. Beraien betekizuna, berriz, hausnartzen dute eta etorkizunean osatuko diren proiektu malguak ezartzen dituzte. Proiektuak garatzeko aurkako bi jarrera izanik, arkitekto hauek, eraikitako ingurunearekiko sentikorra den ordena bat eskaintzen digute. Eta ordena horrek orainaldi gizatiartuago batean bizitzeko gaitasuna dugula gogorarazten digu, gure etorkizuna mundu hobegia batean iruditzen ahaleginduz.



© Laura Martínez de Guereñu arkitekto doktorea eta IE Arkitektura Eskolako irakaslea da.

(7) Jarrera diskurtsiboari buruz ari naizenean, Sarah William Goldhagen-ek, eta honek Jürgen Habermas-etik, modernitatea arkitekturaren "diskurtso" bat delako definizioa erabili dut. Begiratu Goldhagen, "Something to Talk About: Modernism, Discourse, Style," Journal of the Society of Architectural Historians 64: 2 (2005), 144-166.

(8) Autore hauek beren proiektuak espikatze erabiltzen duten modua biztanleen eta arkitektoen arteko elkarriketa horren adierazgarri hobezina da. Jarrera hau argi ikus zitekeen IE Unibertsitateko Arkitektura Eskolan Alejandro Aravenak eta Emiliano Lopez eta Monica Riverak emandako hitzaldi desberdinetan. Alejandro Aravena, "Elemental: Arquitectura y Activismo"; INOUT: Affecting Architecture, Expanding Possibilities Lecture Series, IE School of Architecture, Segovia, Azaroak 3, 2010. eta Emiliano Lopez eta Monica Rivera, "Un proyecto público, un proyecto privado"; GLOBAL: Acting global, acting local Lecture Series, IE School of Architecture, Segovia, Otsailak 17, 2010. Hitzaldi hauek bi kurtso akademiko desberdinetan burututako hitzaldi-sail batzuen atal ziren. INOUT-en arkitektura arkitektoaren domeinu eskusiboa den edo horren ordez, prozesuan beste eragile garrantzitsu batzuk inplikatu dauden ala ez proposatzen zen. Aravenak arkitektoak aktibista politikoekin parekatzen zituen eta Quinta Monroy etxebizitzaren biztanleak diseinaren prozesuaren nagusi bezala aurkezten. GLOBAL-en globalaren eta lokalaren arteko aurkakotasuna laburbiltzen zuten zenbait arkitekto gazteen lana aurkezten zen eta Emiliano Lopez eta Monica Riveraren kasuan, eguneroko bizitzaren analisiari prestatzen dieten arretak biztanleekin diskurtso bat irekitzen du.